

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUNA

#### **Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea —2016ko hirugarren hiruhilekoa—**

Zergen eta Zuzenbide Publikoko beste Diru-sarrera batzuen Gestio, Zerga-bilketa eta Ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita, Uren Udal Zerbitzuan —Antilletako pasabidea, 3A— eta San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea— urez hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasen errolda fiskalak, 2016. urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkionak, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiterik izan dezaten.

Errolda horietan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du ediktu honek, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo diren errolda horietan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzen-dua, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik. Aldian-aldean ordaindu beharreko zorrak izaki, denei batera jakinaraztekoak, ordaintzeko borondatezko aldean ere aurkeztu ahal izango da errekurtsoa, edo hilabeteko epean, hura amaitzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 7an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**